

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

Arantzazu Izena eta Franciscanos Misioneros Vascos izeneko liburu-kiak argitaratu ondoren, Fraide Frantziskotarrek –hobeto esanda, Frantziskotarrak^{Ofm} direlakoek eta horiei bereziki lotuta dauden Klaratar eta Sorkundetarrek– Euskal Herrian bizitako historiari buruzko Ignazio Omaetxebarriaren idazlanak jasotzen ditu hirugarren liburuki honek.

Gure autoreak gai horretaz aldizkarietan eta egunkarietan argitaratu-riko artikulua bildu ditugu bereziki bertara. Horiekin batera jaso dugu 1962an argitaratu zuen *San Bartolomé de Rocafort en el camino de Santiago* liburuska.

Aipaturiko lehen liburukian eman genuen gure autorearen aurkezpen bio-bibliografikoa. Han egindako idazkien sailkapenean ikus daitekeenez, Omaetxebarriak bere idatz-alor nagusietakoa izan ez zuen frantziskotar bizitza. Frantziskotarren biziera eta espiritualitatea landu zituen bereziki bere artikulua eta liburuetan: Fraideena eta Mojena. –Kontuan hartzekoak dira bereziki Klaratarren eta Sorkundetarren erregela eta bizi-arauei buruz nahiz habitu-jazte eta profesio-ko erritoei buruz idatzitako liburu- eta liburuska-sorta–.

Fraide Frantziskotarren Euskal Herri barruko historiari buruz ez zuen liburu-ki argitaratu, Rocaforteri buruzkoa izan ezik –hemen ez ditugu kontuan hartzen Euskal Herriko Frantziskotar Misio eta misiolariei (fraide eta mojei) buruz idatzitako obra historiko eta biografikoak, bigarren liburukiari dagozkionak–. Klaratarrei eta Sorkundetarrei dagokienez, ostera, kontuan izatekoak dira horien Espainiako edo munduzabaleko historiari buruz idatzitako liburuak, non Euskal Herriko buruzko berriak ere aurki baitaitezke: *Primeros Monasterios de Clarisas en España – Las Clarisas a través de los siglos – Las Monjas Concepcionistas. Notas históricas sobre la Orden fundada por Beatriz de Silva.*

Idazki laburragotan eta aldizkaritako artikulutan landu zuen bereziki frantziskotarren (gizonezkoen eta emakumezkoen) Euskal Herri barruko historia Omaetxebarriak. Horiexek jasotzen ditugu, jaso ere, hirugarren liburuki honetako bilduman, Rocaforteri buruzko liburuskarekin batera.

Jakina, aurreko bi liburukietara bildutakoak oso loturik daude liburuki honetako alorrari. Aurrenekoari dagokionez, zer esanik ez dago Arantzazu izan dela ia hasieratik Cantabriako Frantziskotar Probintziaren etxe enblematikoa –kontuan izan Arantzazuko Andre Maria izendatu zutela 1738an Probintziako zaindari nagusitzat: ik. bilduma honetan “Reina de Vasconia y Patrona de Cantabria” izeneko kapitulu- eta bereziki, Omaetxebarriak dioenez, haren “ama-etxea”, Gasteizko San Frantzisko komentua, betirako itxita geratu zenetik (ik. 14. oin-oharra). Beraz Arantzazuren historia Fraideen Euskal Herriko historiaren ataletako bat baino zerbait gehiago da. Bestalde, bigarren liburukian aurkezturik ageri diren Misiolariak Frantziskotarren Euskal Herriko historiaren parte dira –eta joan zitezkeen liburuki honetan ere–; baina horiek Euskal Herriko kanpo-historian sartu ditugu; liburuki honetan, berriz, barne-historiaz ari gara zuzenean, Frantziskotarren Euskal Herriko barne-historiaz, alegia.

Hiru sailetan sailkatu ditugu artikulukoak:

I. Orígenes y fundaciones.

San Frantzisko Asiskoaren oinatzak Euskal Herrian.

II. Casas e iglesias.

Euskal Herriko frantziskotar elizen estiloa

III. Renovadores y evangelizadores.

Lorratza utzi zuten Euskal Herriko fraideak

Aurrenekoan Euskal Herriko Frantziskotar presentzia historikoaren hasierak kontaktzen ditu Omaetxebarriak (XIII. mendea), San Frantzisko Asiskoaren beraren bisita eta presentzia abiapuntu eta oinarri: Tradizioz, eta Omaetxebarriaren iritziz, datu historiko sendoen arabera, San Frantzisko Asiskoak berak “fundatu” zuen Rocaforteko San Bartolome Eremitorioak du leku guztiz berezia “Jatorrien” historian, jaki-

na. Sail berean, eta bigarren azpisail moduan, Nafarroako Kustodiaren historiari buruzko artikuluak bildu ditugu, horixe izan baitzen Euskal Herriko Frantziskotar Ordenaren lehen egitura autonomoa.

Bigarren atalean Euskal Herriko frantziskotar etxeei (komentuei eta elizei) buruz Omaetxebarriak idatzitako artikulu historiko edota “kronika historikoak” bildu ditugu, Arantzazuri buruzkoak izan ezik. Ez dira komentuen historia sintetikoak, horien inguruko gertakari historiko jakinen kontakizunak baino, gehienetan behintzat.

Hirugarren atalean Euskal Herriko zenbait fraide frantziskotar seinalaturi buruzko artikulu historiko-biografikoak jaso ditugu; horiek ere ez dira pertsonaien benetako biografia sintetikoak, baina bai horien bizitzako ekinbide nagusien kontakizun biografikoak, horiei loturiko hainbat gertakariaren kontakizun jakingarriak tartekatuz sarritan. “Renovadores y Evangelizadores. Bidegileak” deitu ditugu, geure aldetik, pertsonaia horiek, denak izan zirelako bide-irekitzaileak edota bide-berritzaileak frantziskotar bizitzan, artean edo kristau espiritualitatean, eta alde horretatik daudelako irudikatuta kontakizun biografikoetan edo “glosa historikoetan” –Joseba Intxaustiren hitzetan–, Omaetxebarriaren aldetik. Pertsonaia denak Arantzazuko (Kantabriako) Frantziskotar Probintziakoak dira, salbu Juan (Jean) C. Urrutibéhity (Urrutibeheti), Ipar Euskal Herrikoa eta Akitaniako Frantziskotar Probintziakoa bera.

Ez dugu, beraz, “Frantziskotarren historia Euskal Herrian” eskaintzen hemen, historia horren atal batzuk baizik: “Retazos de historia”. Horiek lotu eta josteko lagunduko digu Joseba Intxaustik idatzi duen *Sarrerak*, hortxe dugulako, eduki ere, Frantziskotarren Euskal Herriko historiaren ikuspegi sintetikoa, baina sistematikoa. Oso egokia da Joseba Intxaustiren sarrera, sarea eskaintzen digulako, batetik, geure aldetik Omaetxebarriaren “atalak” lotuz eta saretuz joateko, eta gidatu egiten gaituelako, bestetik, horren “glosa historikoak” jakinminez irakurri eta kritikoki balioztatzeko.

IRAKURLEARENTZAT OHAR METODOLOGIKO ZENBAIT

ALGUNAS OBSERVACIONES METODOLÓGICAS

1. Ignacio Omaechevarría izenaren idazkera errespetatu egin dugu, autoreak berak horrela erabili duenean. Editorearen aldetik aipatzean, ordea, Euskaltzaindiaren arauen arabeko idazkeran eman dugu: Ignazio Omaetxebarria.

2. Liburuan “Provincia de Cantabria” (edota “Cantabria”, besterik gabe) aipatzean, Kantabriako Frantziskotar Probintzia esan gura du normalean autoreak, gaur egun *Arantzazuko Frantziskotar Probintzia* izena duena.

3. Artikuluetako batzuk bibliografi oharrak dituzte, autoreak hala emanda. Artikuluaren azkenean doaz horrelakoak, eta testuan **parentesi arteko** superindize-zenbakiez dago markatuta horien erreferentzia.

4. Argitalpenaren prestatzaileak irakurlearen argibiderako orri-aldeetako oinetan noizbehinka erantsi dituen oharrak superindize-zenbaki **soilez** daude seinalatuta testu barruan.

5. Autorearen bibliografi oharrak emateko metodologia bateratu egin dugu: Abizenen hizki larriak, titulu etzanak, etab.

6. Garai eta urte ezberdinekoak izanik artikulua, hitzen grafiaren aldetik badaude batzutan aldeak batetik bestera. Oro har gaurko gaztelaniaren ortografi arauetara ekarri ditugu autoreak berak sorturiko testuak.

7. Idazlana aldizkariren batean argitaratua denean, horren iturria eman dugu azkenean; batzutan leku batean baino gehiagotan argitaratu zuen autoreak; horrelakoetan hemen erabilitako edizioa aipatzen dugu aurrenik, eta azpian, parentesi artean, beste edizioak.

8. Liburuaren azkenean lagun- eta leku-izenen eta hainbat erakunderen aurkibidea aurkituko du irakurleak, izen bakoitzaren orrialde-erreferentzia eta guzti.

1. Respetando el nombre de Ignacio Omaechevarría en los lugares donde él mismo lo haya usado, en los lugares en que es citado por el editor, hemos escrito Ignazio Omaetxebarria, siguiendo la normativa de Euskaltzandia.

2. En el libro se habla muchas veces de la "Provincia de Cantabria". Debe quedar claro que no se refiere a lo que hoy es Comunidad Autónoma de Cantabria y antes provincia de Santander, sino a la Provincia Franciscana de Cantabria, surgida con ese nombre el año 1551.

3. Algunos de los escritos de Omaetxebarria contienen notas bibliográficas o de otro tipo. Tales notas van señaladas en el texto con un número superíndice **entre paréntesis**, y están recogidas al final de cada capítulo.

4. El editor ha añadido algunas notas aclaratorias o explicativas, que van en pie de página. Están señaladas en el texto con un **simple** número superíndice.

5. Hemos unificado la metodología de las notas bibliográficas: las mayúsculas de los apellidos, los títulos de libros y revistas en cursiva, etc.

6. Siendo los artículos de períodos y años distanciados, a veces hay diferencias ortográficas entre los mismos. En general hemos adaptado los textos del autor a las normas ortográficas vigentes de la lengua castellana.

7. Algunos artículos que aquí reproducimos fueron anteriormente publicados en varias revistas (o diarios); en esos casos, al indicar la fuente al final del capítulo, señalamos en primer lugar la edición directamente usada aquí, y a continuación las referencias bibliográficas de las otras ediciones, entre paréntesis.

8. Al final de la obra el lector hallará un índice completo de nombres de personas y de lugares y de diversas instituciones, con sus correspondientes referencias de página.

Aldizkari-izenen laburdurak / Siglas de revistas

Hona hemen autoreak gehien erabiltzen dituen aldizkarien laburdurak / *Indicamos aquí la lectura de las siglas de revistas más empleadas por el autor.*

AFH: *Archivum Franciscanum Historicum*

AIA: *Archivo Ibero-Americano*

AOM: *Acta Ordinis Fratrum Minorum*

BRSVPA: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*

Paulo Agirrebaltzategi